

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

7.292

346/2003 FORU AGINDUA, azaroaren 12koa. Honen bidez, Elciegoko SI-1 sektoreko Plan Partzialari behin betiko onarpena ematen zaio.

## I. AURREKARIAK

Lehena.- Udalbatzaren 2003ko apirilaren 29ko erabakiz, Elciegoko Udalak hasierako onarpena eman zion SI-1 sektoreko plan partzialari. Orobat, espediente hilabetez jendaurrean jartzea erabaki zuen; eta, horretarako, iragarkia argitaratu zuen Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN (52. zenbakia, 2003ko maiatzaren 7koa), El Correo egunkarian (2003ko irailaren 18koa), eta udaltekiko iragarki taulan.

Bigarrena.- Jendaurrean izan zen bitartean, inork ez zuen alegaziorik aurkeztu. Horrenbestez, Udalak, 2003ko ekainaren 27an, behin behineko onarpena eman zion espedienteari, eta Arabako Foru Aldundiari bidali zion, behin betiko onar zezan. Aldundian 2003ko abuztuaren 4an sartu zen.

Hirugarrena.- Espediente aztertuta, arauzko dokumentazioa falta zela ikusi zen. Hori horrela, Udalari dokumentazio hori eskatu zitzaion bai 2003ko irailaren 10ean bai 2003ko urriaren 13an, eta Udalak, berri, 2003ko azaroaren 6an bidali zuen eskatutako dokumentazioa.

## II.- OINARRIAK

Lehena.- Plan Partzial honek Elciegoko SI-1 sektorearen eremua antolatzen du zehatz-mehatz, indarrean dauden ordezko arauak lurzoru urbanizagarritzat (edo sektoretan banatutako lurzoru urbanizagarria) sailkatua eta industrialdetzat kalifikatua.

Bigarrena.- Espedienteko dokumentuak aztertu ditugu, eta ikusi dugu plan partzial horrek —hala alderdi materialetan nola alderdi formaletan— indarrean dauden hirigintzako legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

Horren ondorioz, ditudan aginpideak erabiliz, ondorengo hau

## XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Elciegoko SI-1 sektoreko Plana Partzialaren espediente, SI-1 sektorearen Kontentsazio Batzordeak sustatua eta udalerririk horretako Udalak izapidetua, behin betiko onartzea.

Bigarrena.- Ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea, onetsitako hirigintza arauekin batera.

Hirugarrena.- Aurreko ebazpen hori behin betikoa da administrazio bidean, eta horren aurka interesdunek ondorengo errekurtsio-etako edozein aurkez dezakete (interesdunek, gainera, egoki deritzen beste edozein neurri har dezakete beren interesak babesteko):

a) Administrazioarekiko auzi errekurtsioa, zuzenean Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan aurkeztu behar da. Horretarako bi hilabete epea dago, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

b) Nahi izanez gero, errekurtsio horren aurretik, interesdunek berraztertzeko errekurtsioa edo beste Administrazio batzuek errekerimendua aurkeztu ahal izango diote ebazpena eman zuen organoari. Hilabete epea izango da horretarako, ebazpena jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.»

Vitoria-Gasteiz, 2003ko azaroaren 12a.- Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIÁVILLA.

## Ordenantza Arautzaileak

## 1. XEDAPEN OROKORRAK

Ordenantza hauek Sektoreko Plan Partzialeak hartzen dituen lurzoruen kalifikazio guztien erregimena arautzen dute.

Ordenantza hauetako artikuluek diotena Plan Partzialaren eremuan egiten diren jarduketak guztietan aplikatu beharko da nahitaez.

Plan Partzial honen garapena Kontentsazio bidez egingo da, hala aurreikusten baita Elciegoko udalerriko (Araba) Ordezko Arauetan.

Ordenantza hauek Plan Partziala behin betiko onartzen den egun bertan sartuko dira indarrean.

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

7.292

ORDEN FORAL 346/2003, de 12 de noviembre, de aprobación definitiva del Plan Parcial del sector SI-1 de Elciego.

## I. ANTECEDENTES

Primero.- Mediante acuerdo del Pleno de fecha 29 de abril de 2003, el Ayuntamiento de Elciego aprobó inicialmente el Plan Parcial del sector SI-1, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 52 de 7 de mayo de 2003 en el periódico El Correo de 18 de septiembre de 2003 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el período de información pública no hubo alegaciones por lo que el Ayuntamiento, en fecha 27 de junio de 2003 procedió a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 4 de agosto de 2003.

Tercero.- Examinado el expediente se observó la falta de documentación reglamentaria; habiendo sido solicitada al Ayuntamiento de Elciego en fechas 10 de septiembre de 2003 y 13 de octubre de 2003, el Ayuntamiento la cumplimentó el 6 de noviembre de 2003.

## II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El presente Plan Parcial se dirige a ordenar pormenorizadamente el ámbito SI-1 de Elciego clasificado por las Normas Subsidiarias vigentes como suelo apto para urbanizar (o urbanizable sectorizado) y calificado por las mismas como zona industrial.

Segundo.- Tras el análisis de la documentación técnica que integra el expediente se comprueba que cumple los requisitos establecidos en la legislación urbanística en vigor, en lo que se refiere a su contenido formal y material

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

## DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente del Plan Parcial del sector SI-1 de Elciego promovido por la "Junta de Compensación del SI-1" y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio".

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava junto con la normativa urbanística aprobada.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente, y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, a 12 de noviembre de 2003.- El Diputado de Urbanismo y Medio Ambiente, ANTONIO AGUILAR MEDIÁVILLA.

## Ordenanzas Regulatoras

## 1. DISPOSICIONES GENERALES

Estas ordenanzas regulan el régimen de cada una de las calificaciones del suelo incluidas en el Plan Parcial del Sector.

Los diferentes artículos de las presentes Ordenanzas deberán aplicarse obligatoriamente a todas y cada una de las actuaciones que se realicen dentro del ámbito del Plan Parcial.

El desarrollo del presente Plan Parcial Interior se hará por el sistema de Compensación, tal y como se prevé en las Normas Subsidiarias del Municipio de Elciego (Álava).

La fecha de entrada en vigor de las presentes Ordenanzas será el día en que se publique la aprobación definitiva del Plan Parcial.

Ordenantza hauetan arautzen ez den guztirako, Elciegoko udalerriko Ordezko Arauen Testu Bateratuko arauak diotena aplikatuko da.

Plan Partziala aurrera eramateko tresnak honako hauek dira:

- a) Kontentsazio Proiektua.
- b) Urbanizazio Proiektua.
- c) Eraikuntza Proiektuak.

Hirigintza Kudeatzeko Arautegian oinarrituta, urbanizazio lanak eta eraikuntzakoak batera gauzatu daitezke.

Dagokien lan baimena eskatu beharko da nahitaez, hala ezarritzen baita Ordezko Arauen Testu Bateratuan.

## 2. KAPITULUA.- LURRAREN HIRIGINTZAKO ERREGIMENA

### 2.1. Lurzoruaren kalifikazioa

Lurzoruaren kalifikazioa Proiektuaren planoetan adierazten da grafikoki, eta honako lurzoru motak bereizten dira:

SAU-S.I.-1 sektorea:

- Industriadarako lurzatiak, eraikin atxikiak edo bakartuetarako.
- Espazio libreen sistemak.
- Jendearentzako eta gizartearentzako zerbitzuak.
- Bideak, aparkalekuak, espaloiak eta oinezkoen esparruak.

Bideen Sistema Orokorraren sektorea:

- Bideak.

### 2.2. Urbanizazio proiektuak arautzea

Urbanizazio proiektuek Plan Partzial honetako xedapenak gauzatea dute helburu

Planeamenduaren Arautegiak 67. artikulutik 70.era dioena bete-ko dute, bai eta Elciegoko udalerriko (Araba) Ordezko Arauen Testu bateratuak dioena ere.

Urbanizazio Proiektuak ezin izango du Plan Partzialak aurreikusten duena aldatu, baina bai urbanizazio lanak gauzatzeko beharrezko diren egokitzapen teknikoak, justifikatuta badaude eta zonan banatutako lurak eta Ordenantza hauetan ezarritako arauak aldatzea eskatzen ez badute.

Urbanizazio Proiektuan Planeamenduaren Arautegiak 69. eta 70. artikuluetan adierazitako agiriak eta lanak sartu beharko dira gutxienez.

## 3. ERAIKITZEKO ARAUAK

### 3.1. Eraikuntzen eta erabileren ordenantzak.

Jabari eta erabilera publikoko zona eraikigarri nahiz eraikiezinei buruz Ordenantzak berariz arautzen ez dituzten alderdietan, Elciegoko udalerriko (Araba) Ordezko Arauetako hirigintzako arauak ezarritakoa beteko da.

Erabilerei eta bateragarritasunei buruzko alderdiak zona bakoitzerako ordenantzetan arautuko dira.

### 3.2. Zona bakoitzerako ordenantza bereziak

Zona bakoitzeko edo kalifikazio xehekatuko kategori bakoitzeko eraikuntzen eta erabileren araudia ondoren dator garatuta.

Honako bi atal orokorretan banatzen dira:

a) Jabari eta erabilera publikoko espazio eraikiezinei buruzko ordenantzak.

b) Zona eraikigarri buruzko ordenantzak.

3.3. Jabari eta erabilera publikoko espazio eraikiezinei buruzko ordenantzak.

Proiektuaren planoetan grafiaturik datozen kalifikazioak kontuan hartuko dira, eta nahitaez bete beharko dira.

Bideen sistema: bideen sistemaren kalifikazio xehekatuen barruan bide sarea bera eta aparkalekuak jasotzen dira.

a) Erakinen erregimena: ezin da inolako eraikinik onartzen.

b) Erabileren erregimena: zona hauetan, hain zuzen bide sarea eta aparkalekua deituriko zonetan, ibilgailuak zirkulatzea eta egotea aurreikusten da erabilera gisa.

Onartzen diren erabilera bateragarriak:

c) Azpiegituren sareen lotuneak eta trazatuak.

Para todos los aspectos no recogidos en las presentes Ordenanzas les serán de aplicación las Normas enunciadas en Texto Refundido de las Normas Subsidiarias del Municipio de Elciego.

Los instrumentos de ejecución del presente Plan Parcial serán:

- a) Proyecto de Compensación.
- b) Proyecto de Urbanización.
- c) Proyectos de Edificación.

Podrá simultanearse la Urbanización y la Edificación en base al Reglamento de Gestión Urbanística.

Será preceptivo la solicitud de la correspondiente Licencia Municipal, conforme a lo establecido en el Texto Refundido de las Normas Subsidiarias.

## 2. RÉGIMEN URBANÍSTICO DEL SUELO

### 2.1. Calificación del suelo

La calificación del suelo se expresa gráficamente en los Planos de Proyecto y comprende los siguientes tipos de suelo:

Sector del SAU-S.I.-1:

- Parcelas industriales para edificaciones adosadas o aisladas.
- Sistemas de espacios libres.
- Servicios de Interés Público y social.
- Viales, aparcamientos, aceras y zonas peatonales.

Sector del Sistema General de Viales:

- Viales.

### 2.2. Regulación de los proyectos de urbanización

Los proyectos de urbanización tienen como finalidad llevar a la práctica las determinaciones contenidas en el presente Plan Parcial.

Cumplirán con lo contemplado en los artículos 67 al 70 del Reglamento de planteamiento, y con lo contemplado en el Texto Refundido de las Normas Subsidiarias del Municipio de Elciego (Álava).

El Proyecto de Urbanización no podrá modificar las previsiones del Plan Parcial, no obstante podrán admitirse adaptaciones motivadas por necesidades técnicas para la ejecución de las obras de urbanización, siempre que estén justificadas y no signifiquen modificación de las superficies zonificadas ni de las Normas establecidas en las presentes Ordenanzas.

El Proyecto de Urbanización deberá incluir como mínimo los documentos y obras indicadas en los artículos 69 y 70 del Reglamento de Planteamiento.

## 3. NORMAS DE EDIFICACIÓN

### 3.1. Ordenanzas de edificación y usos.

En todos los aspectos no regulados específicamente por las Ordenanzas relativas a las zonas, bien sean edificables o no edificables de dominio y uso público, se estará a lo establecido por las Normas Urbanísticas contenidas en la Revisión de Normas Subsidiarias del Municipio de Elciego (Álava).

Los aspectos relativos a los usos y sus compatibilidades quedan regulados en las Ordenanzas de cada zona.

### 3.2. Ordenanzas particulares para cada zona

Se desarrolla a continuación la normativa de edificación y usos de cada zona o categoría de calificación pormenorizada.

Se agrupan en dos apartados generales:

a) Ordenanzas relativas a los espacios no edificables de dominio y uso público

b) Ordenanzas relativas a las zonas edificables.

3.3. Ordenanzas relativas a los espacios no edificables de dominio y uso público.

Se tendrán en cuenta, siendo de obligado cumplimiento, las calificaciones que aparecen graficiadas en los Planos de proyecto.

Sistema viario: Dentro de la calificación pormenorizada del sistema viario se contempla la propia red viaria y aparcamientos.

a) Régimen de la edificación: No se permite ningún tipo de edificación.

b) Régimen de usos: El uso previsto en estas zonas es el de circulación y estancia de vehículos en las denominadas como red viaria y aparcamientos.

Como usos compatibles se permiten:

c) Conexiones y trazados de las redes de infraestructuras.

Espazio libreen sistema: espazio libreen kalifikazio xehekatua-ren barruan lorategiak eta jolasguneak sartzen dira, bai eta espaloiak eta oinezkoen esparruak.

d) Eraikuntzen erregimena: Urbanizazio Proiektuan zehazten diren hiri altzariak jar daitezke.

e) Erabileren erregimena: zona hauetan oinezkoak eta motorrik gabeko ibilgailuak (bizkiletak, etabar) zirkulatzea eta egotea aurreikusten da erabilera gisa.

Onartzen diren erabilera bateragarriak:

f) Azpiegituren sareen lotuneak eta trazatuak.

3.4. Zona eraikigarriei/industrialdeei buruzko ordenantzak.

3.4.1 Erabileren erregimena.

- Berezko erabilera: industriarako. Biltegiak eta handizkako merkataritza.
- Erabilera bateragarria:
- Upategia eta nekazaritzako pabiloia.
- Hirugarren sektorekoa.
- Debekatutako erabilera: gainontzeko erabilerak debekatu-ta egongo dira.

3.4.2. Hirigintzako parametroak:

Gutxieneko lurzatia: lerrokaduren planoan adierazitakoa izango da lurzati eraikigarria.

Eraikigarritasuna: Gehieneko eraikigarritasuna: 0,60 m<sup>2</sup>t./m<sup>2</sup>s.

Guztira 14.906,16 m<sup>2</sup> dira, eta aprobetxatzeko diren lurzati guz-tien artean banatu behar dira. Banatu ondoren, honela gelditzen da:

- 1 lurzatia: 1.711,14 m<sup>2</sup>
- 2 lurzatia: 3.054,90 m<sup>2</sup>
- 3 lurzatia: 1.836,13 m<sup>2</sup>
- 4 lurzatia: 2.768,63 m<sup>2</sup>
- 5 lurzatia: 3.176,34 m<sup>2</sup>
- 6 lurzatia: 2.359,02 m<sup>2</sup>

Eraikigarri den azalera guztia definitutako erabilera orokorrera-ko izango da.

Eraikitako azalera zenbat den jakiteko Ordezko Arauetan ezarri-tako irizpideak hartuko dira kontuan.

- Gehieneko okupazioa: lerrokaduren arteko lurzatiaren zona osoa okupatu ahal izango da, agiri grafikoaren arabera.

- Lurzatiaren lerrokadura: agiri grafikoetako lerrokaduren plano-etan adierazitakoa da.

3.4.3. Eraikitzeako parametroak: eraikin mota guztietarako.

- Mugetarainoko tartea: lerrokaduren planoetan adierazitakoa.

- Solairu kopururik handiena: BS+1. Pabiloi barruko solairuar-tekoa edo atxikitako eraikinean beste helburu batzuetarako erabiltzen dena hartuko da lehen solairutzat. Eraikigarria den azalera osoa erres-petatzen bada, solairu horretan eraiki ahal izango da.

- Altuerak: erlaitzaren altuerarik handiena 8,00 metrokoa izan-go da fatxada guztietan, baina aldatu ahal izango da gauzatu beha-rreko jarduerak hala eskatzen badu. Kasu horretan eraikuntzaren gau-zatze proiektua justifikatu behar da.

Erlaitzaren altuerarik handiena fatxadaren erdian neurtuko da.

Behe Solairuaren altuera librea, solairuarterkoak okupatzen duen aldean, 3,00 metrokoa izango da gutxienez.

Solairuarterkoaren altuera librea 3,00 metrokoa izango da.

3.4.4. Estetikako parametroak: material, osakera eta diseinuari dagokienez ez dago inolako mugarik.

Udalak atal honetan mugak ezar ditzake egoki irizten badio.

3.5. Zona eraikigarriei buruzko ordenantzak/Jendearentzako eta gizartearentzako interesgarriak diren zerbitzuak.

3.5.1. Erabileren erregimena.

- Berezko erabilera: jendearentzako eta gizartearentzako interes-garriak diren zerbitzuak eta ikastetxeak.

- Debekatutako erabilera: gainontzeko erabilerak debekatuta egongo dira.

3.5.2. Hirigintzako parametroak:

- Eraikigarritasuna: gehieneko eraikigarritasuna: 0,20 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>.

Sistema de espacios libres: Dentro de la calificación pormeno-rizada de espacios libres se contempla los jardines y áreas de juego, y las aceras y zonas peatonales

d) Régimen de la edificación: Se permite la localización de ele-mentos de mobiliario urbano que en el Proyecto de Urbanización se especifiquen.

e) Régimen de usos: El uso previsto en estas zonas es el de cir-culación y estancia de peatones y vehículos sin motor (bicis, etc.).

Como usos compatibles se permiten:

f) Conexiones y trazados de las redes de infraestructuras.

3.4. Ordenanzas relativas a las zonas edificables/ industrial.

3.4.1 Régimen de usos.

- Uso característico: Industrial. Almacenes y comercio mayo-rista.
- Uso compatible:
- Bodega y pabellón agrícola.
- Terciario.
- Uso prohibido: Se consideran prohibidos los restantes usos.

3.4.2. Parámetros Urbanísticos:

Parcela mínima: Se considera parcela edificable la reflejada en el plano de alineaciones.

Edificabilidad: Edificabilidad máxima 0,60 m<sup>2</sup>t./m<sup>2</sup>s.

14.906,16 m<sup>2</sup> totales a repartir entre las diferentes parcelas con aprovechamiento, quedando:

- Parcela 1: 1.711,14 m<sup>2</sup>
- Parcela 2: 3.054,90 m<sup>2</sup>
- Parcela 3: 1.836,13 m<sup>2</sup>
- Parcela 4: 2.768,63 m<sup>2</sup>
- Parcela 5: 3.176,34 m<sup>2</sup>
- Parcela 6: 2.359,02 m<sup>2</sup>

Toda la edificabilidad deberá ser destinada al uso global defi-nido.

Para el cómputo de la superficie construida se seguirán los cri-terios establecidos en las Normas Subsidiarias.

Ocupación máxima: Podrá ocuparse toda la zona de la parcela que queda definida dentro de las alineaciones, según la documen-tación gráfica.

Alineación de Parcela: Es la definida en los planos de alineacio-nes de la documentación gráfica.

3.4.3. Parámetros Edificatorios: Para todas las tipologías edifi-catorias.

- Separación a linderos: Las indicadas en los planos de aline-a-ciones.

- Número máximo de plantas: PB+1, considerando como plan-ta primera la entreplanta dentro del pabellón o la destinada a otros usos en edificio anexo, que puede edificarse siempre que se cum-pla con la edificabilidad total.

- Alturas: La altura máxima de cornisa será de 8,00 m en todas sus fachadas, pudiendo modificarse la misma cuando la actividad a desarrollar lo requiera técnicamente, debiéndose justificar en el pro-yecto de ejecución de la edificación.

La altura máxima de cornisa se medirá en el centro de la fachada.

La altura libre de la Planta Baja en la zona ocupada por la entre-planta será de 3,00 m como mínimo.

La altura libre de la entreplanta será de 3,00 m como mínimo.

3.4.4. Parámetros estéticos: No se establecen limitaciones en este sentido en cuanto a materiales, composición y diseño.

El Ayuntamiento podrá imponer condiciones en este apartado cuando lo considere oportuno.

3.5. Ordenanzas relativas a las zonas edificables/Servicios de Interés Público y Social.

3.5.1. Régimen de usos.

- Uso característico: Servicios de Interés Público y Social y Centros Docentes.

- Uso prohibido: Se consideran prohibidos los restantes usos.

3.5.2. Parámetros Urbanísticos:

- Edificabilidad: Edificabilidad máxima: 0,20 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>.

- Gehieneko okupazioa: lerrokaduren arteko lurzatiaren zona osoa okupatu ahal izango da, agiri grafikoaren arabera.

- Lurzatiaren lerrokadura: agiri grafikoetako lerrokaduren planoetan adierazitakoa da.

### 3.5.3. Eraikitze parametroak:

- Mugetara bitarteko tartea: oin berriko eraikinak mugakide diren lurzatiak eta bideak baino 3,00 metro atzerago egongo dira.

- Solairu kopururik handiena: BS+1

a) Altuerak:

Erlaitzaren altuerarik handiena 7,50 metrokoa izango da fatxada guztietan.

Erlaitzaren altuerarik handiena fatxadaren erdian neurtuko da.

Behe Solairuaren altuera librea 2,50 eta 4 metro bitartekoa izango da.

Lehen Solairuaren altuera librea 2,50 eta 3,50 metro bitartekoa izango da.

Solairu bakarreko eraikinen altuerarik handiena 4 metrokoa izango da erlaitzetik neurtuta.

3.5.4. Estetikako parametroak: material, osakera eta diseinuari dagokienez ez dago inolako mugarik.

Udalak atal honetan mugak ezar ditzake egoki irizten badio.

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

7.446

**344/2003 FORU AGINDUA, azaroaren 11koa, Zambranako udalerrria antolatzeko ordezkio arauetako SAUR-1eko 2 sektoreko konpentsazio batzordea Hirigintza Erakunde Laguntzaileen Erregistroan sartzeko bideratutako espedienteari buruzkoa.**

Zambranako Udalak, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean 2003ko urriaren 27an sarrera izan zuen idazki baten bidez, sail honi jakinarazi zion Zambranako Udalaren 2003ko urriaren 6ko erabaki bat. Erabaki horren bidez onartu egiten zen Zambranako udalerrria antolatzeko ordezkio arauetako SAUR-1eko 2 sektoreko konpentsazio batzordea eratzea, baita eskatu ere, batzorde hori Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Erakunde Laguntzaileen Erregistroan sartzeko.

Hirigintza Zerbitzuak espedientearen forma eta prozedura zuzentasunari buruzko txosten arrazoitua eman zuen, baita proposatu ere batzordea erregistroan sartzeko.

Ondorioz, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

### XEDATU DUT:

Zambranako udalerrria antolatzeko ordezkio arauetako SAUR-1eko 2 sektoreko konpentsazio batzordeari buruzko eratze espedientearen izapidetzea eta forma edukia onartzea eta batzorde hori Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Erakunde Laguntzaileen Erregistroan sartzeko agintzea.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko azaroaren 13a.- Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIÁVILLA.

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

7.473

**372/2003 FORU AGINDUA, azaroaren 20koa. Honen bidez, Lantziegoko Planeamenduko Ordezko Arauak aldatzeko espedienteari (El Carrascalen SAUI2 industria sektorea sortzeari buruzkoa) behin betiko onarpena ematen zaio.**

### I.- AURREKARIAK

Lehena.- 2002ko maiatzaren 22an Lantziegoko Udalak Planeamenduko Ordezko Arauen Xedapen Aldaketari (El Carrascalen SAUI2 industria sektorea sortzeari buruzkoa) hasierako onarpena ematea erabaki zuen, baita espediente hori hilabetez jendaurrean jarzte ere. Azken horretarako iragarki bana argitaratu zen 2003ko ekai-

- Ocupación máxima: Podrá ocuparse toda la zona de la parcela que queda definida dentro de las alineaciones, según la documentación gráfica.

- Alineación de Parcela: Es la definida en los planos de alineaciones de la documentación gráfica.

### 3.5.3. Parámetros Edificatorios:

- Separación a linderos: Las edificaciones de nueva planta se retranquearán 3,00 m con las parcelas colindantes y viales.

- Número máximo de plantas: PB+1

a) Alturas:

La altura máxima de cornisa será de 7,50 m en todas sus fachadas.

La altura máxima de cornisa se medirá en el centro de la fachada.

La altura libre de la Planta Baja estará comprendida entre 2,50 y 4 m.

La altura libre de la Planta Primera estará comprendida entre 2,50 y 3,50 m.

La altura máxima de edificios de una sola planta será de 4 m a cornisa.

3.5.4. Parámetros estéticos: No se establecen limitaciones en este sentido en cuanto a materiales, composición y diseño.

El Ayuntamiento podrá imponer condiciones en este apartado cuando lo considere oportuno.

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

7.446

**ORDEN FORAL 344/2003, de 11 de noviembre, en relación con expediente de inscripción Junta Compensación del Sector 2, SAUR-1 de Zambrana, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zambrana, en el Registro de Entidades Urbanísticas Colaboradoras.**

El Ayuntamiento de Zambrana, mediante escrito con fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava del día 27 de octubre de 2003, remite a este Departamento resolución del Ayuntamiento, de 6 de octubre de 2003 aprobatorio de la Constitución de la Junta de Compensación del Sector 2, SAUR-1 de Zambrana, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zambrana, solicitando su inscripción en el Registro de Entidades Urbanísticas Colaboradoras del Territorio Histórico de Álava.

El Servicio de Urbanismo eleva informe razonado admitiendo la corrección formal y procedimental del expediente y proponiendo su inscripción en el Registro.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

### DISPONGO:

Aprobar la tramitación y el contenido formal del expediente de Constitución de la Junta de Compensación del Sector 2, SAUR-1 de Zambrana, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zambrana, y ordenar su inscripción en el Registro de Entidades Urbanísticas Colaboradoras de Álava.

Lo que se publica para general conocimiento.

Vitoria-Gasteiz, a 13 de noviembre de 2003.- El Diputado de Urbanismo y Medio Ambiente, ANTONIO AGUILAR MEDIÁVILLA.

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

7.473

**ORDEN FORAL 372/2003, de 20 de noviembre, de aprobación definitiva del expediente de Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Lanciego, referente a la creación del sector industrial SAUI2 en "El Carrascal".**

### I.- ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 22 de mayo de 2003, el Ayuntamiento de Lanciego acordó aprobar inicialmente la Modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento referente a la creación del sector industrial SAUI2 en "El Carrascal", así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue